

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Ondare Kudeaketa

Arabako ardoak zabaldu eta sustatzeko proiektua aukeratzeko, eta "Zulueta jauregia" izeneko udal jabetzako higiezinaren jabari-emakidarako baldintza-agiria

1) Xedea. Arabako ardoen kultura zabaldu eta sustatzeko proiektu bat aukeratzeko, eta udal jabetzako eraikin baten jabari emakida egitea, proiektu hori garatzeko.

Ardoa elementu nagusi eta dinamizatzaile izango duen zentro bat egin nahi da, Arabako ardoaren zentroa. Horretarako kudeaketa-proiektu bat aurkeztu behako da, eta bertan espezializatua ez den publikoari, oro har, zuzendutako prestakuntza, sustapen eta zabalkunderako jarduerak egitea aurreikusi behar da.

Aukeratutako proiektua udalaren jabetzekoa den Zulueta jauregian gauzatuko litzateke, jabari emakiden erregimenean. Eraikina Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorrean jasota dago (I-264tik I-268ra bitarteko erreferentzietan), eta jabari publikoko eta zerbitzu publikoko ondasunaren izaera juridikoa du.

Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 93. eta 94. artikuluetan dago araututa, oro har, jabari publikoaren gaineko emakiden erregimena, eta toki-erakundeei dagokienean, berariaz, Ondasunen Araudia onetsi zeneko ekainaren 13ko 1372/86 EDan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzazko Errege dekretuan (toki araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenak jasotzen dituen testu bategina onesten du).

2) Kanona. Kontratuko lehen urterako gutxieneko kanona 34.532,61 eurokoa izango da. Kopuru horietan ez daude zergak sartuta.

Kanona urtero eguneratuko da, Kontsumo Prezioen Indizearen ehuneko 100ean, nazio mailan neurtuta, edo hori ordeztzen duen Estatistika Institutu Nazionalaren antzeko indizean, eta horri gehitu egingo zaizkio lehiatzaileek eskainitako hobekuntza-aldeak.

Esleipendunak inbertsioak egin beharko ditu higiezinan. Inbertsio horiek ezinbestean jaso beharko dituzte I. eranskinean (nahitaezko inbertsioak) adierazitako jardunak. Horretaz gain, esleipendunak proposatutako beste zenbait ere jaso ahalko ditu, inbertsioaren zenbatekoaren arabera, eta inbertsio-gehigarri izaera izango dute.

Udalak onetsi eta esleipendunak egindako eta justifikatutako egitura-elementuetako inbertsio-gehigarriak (baldintza-agiri honetan zehaztuak) konpentsatu egin ahal izango dira, neurri batean, emakidadunak ordaindu beharreko kanonarekin, baina inbertsioak konpentsatu ondoren geratzen den kanona ezingo da inolaz ere ekitaldi bakoitzari dagokion kanonaren ehuneko 67a baino gutxiago izan.

3) Administrazio-klausula partikularrak. Dosierra Ogasun Saileko Idazkaritza Teknikoaren Zerbitzuan aztertu ahal izango da, alde zuzenetik hitzordua eskatuz gero, eskaintzak aurkezteko egunaren aurrekora arte, herritarrei laguntzeko bulegoko jendaurreko ordutegian (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25).

Administrazio-klausula partikularren orria udalaren <https://v-g.eus/zulueta> web orrian kontsulta daiteke.

4) Eskaintzak aurkezteko lekua, epea eta modua. Gasteizko Udalaren Erregistro Nagusian - Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, behea, 01008, Gasteiz- aurkeztu beharko dira eskaintzak, urriaren 12ko 1098/2001 Legegintzako Errege Dekretuak 80.4 artikuluan xedatutako moduan, 8:30etik 13:00etara, astelehenetik ostiralera, edo postaz, 30 egun naturaleko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Postaz igorritz gero, bidalketa zein egunetan egin den justifikatu beharko du lehiatzaileak, baita bidalketa egunean bertan eskaintza egin izana deialdia egin duen organoari jakinarazi ere posta elektronikoz ofertasconcursos@vitoria-gasteiz.org.

Lizitaziorako dokumentazioa bi gutun-azal itxitan aurkeztu beharko da: A gutun-azalean jarduerari buruzko dokumentazioa eta B gutun-azalean eskaintza ekonomikoari dagokiona, baldintza orrian adierazitako dokumentazioa erantsita. Bi gutun-azalen kanpoko aldean zein lizitaziotarako diren adierazi beharko da, eta lehiatzaileak edo hura ordezkatzeko duenak sinatuta egon beharko dute.

5) Eskaintza irekitzeko ekitaldi publikoaren lekua, eguna eta ordua. Eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denetik bost egun balioduneko epean eratuko da balioespen batzordea.

Batzordeak A gutun-azalak irekiko ditu eta, ondoren, lehen gutun-azaletarako betekizunak (40 puntu) bete dituzten lehiatzaileen B gutun-azalak.

Gutun-azalak ireki eta agiriak aztertu ondoren, egindako bilkuraren edo bilkuren akta jasoko du balioespen batzordeak, eta jarduteko gaitasuna-egiaztatze eta bermea ezartzeko eskatuko dio aukeratutako lehiatzaileari. Azkenik, esleipen proposamena igorriko dio Tokiko Gobernu Batzarrari.

6) Behin betiko bermea. Esleipendunak behin betiko bermea jarri beharko du 15 eguneko epean, esleipenaren jakinarazpena jasotzen duenetik kontatuta. Bermea okupatuko den jabari publikoaren eta egin beharreko lanen aurrekontuaren ehuneko 3koa izango da.

Dosierrean jasotako tasazio-txostenaren arabera, higiezinak 2.852.989,70 euro (bi milioi zortziehun eta berrogeita hamabi mila bederatziehun eta laurogeita bederlatzi euro eta hirurogeita hamar zentimo) balio du.

Esleipendunak ezinbestean egin beharreko gutxieneko obrak 85.000,00 euroan (laurogeita bost mila euroan) balioetsita daude.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko ekainaren 11n

Ogasun Saileko zinegotzia
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO